

JUAN JOSE IRAZUSTA NOBELAGJLEA GOGORATUZ

Joxan Arbelaiz

Urtarrilaren 12an eta 99 urte zituela hil zen Hondarribiako Zaldunborda baserrian Juan José Irazusta. Ibilbide harrigarria berea, “Nork bere bidea” eleberria argitaratu baitzuen 1980. urtean Auspoa sailean, 79 urte zituela, ordurarte ezer argitara eman gabea zen gizon honek. Datu bakar honek adierazten digu Juan José ez zela gizon arrunta. Baserritar berezia genuen gure idazlea.

Hondarribiako Jaizubia bailarako Kamio-txiki baserrian jaio zen 1.901. urteko apirilaren 25ean. Ikasketak Irungo Lasalle ikastetxean egin zituen, beti ere erdaraz, noski. 18 urte zituela, Afrikako gerrara joan beharko zukeen beldurrez ihes egitea erabaki zuen. Honela, Hondarribiako beste lagun batekin Bartzelonara jo zuen eta bertan, “Victoria Eugenia” itsasontzia hartuta Argentinara abiatu zen.

Buenos Airesera joan zen aurrena eta Bahía Blanca eta Río Coloradora gero. Bi toki hauetan Etxalarko Etxenike izeneko gizonetzko bat izan zuen nagusitzat. Hemendik Patagoniara joan zen, beti ere artzantzan lan eginez. Guztira 12 urte egin zituen Argentinan eta urte hauetan guztietan artzai soila izan ez zela susmo guztia du bere alaba Irenek: “Argentina garaiko bere argazkietan ager den dotorezia ez da oso ohizkoa izaten artzai batengan. Bestetik, bertako politikarekiko kezka eta interesa izan zuela ikus daiteke Unión-Cívico Radical partiduko 132 zenbakiko

karneta izan zuela kontuan harturik. Bi datu hauek bere nortasunaren adierazle dira”.

Urte hauetan guztietan harreman oso estua izan zuen indioekin eta oso iritzi baikorra zuen haiekin: “Aitak zioenez, indioak apalak eta irekiak ziren eta zuten guztia eskeintzen zuten- berriro ere bere alaba Irenek kontatzen digu. Horregatik ezin zuen jasan zenbait pelikuletan nola tratatzen zituzten ikustea. Eta ondo ezagutzen zituen, askotan beraien dendetan lo egina zelako. Sutu egiten zen”.

Errepubika ezarri zenean, 1.931 urtean ihesi egindakoek barkamena izan zuten eta Juan José Hondarribiara itzuli zen.

Berrogei urte zituela, Bergarako Santa Marina auzoko Txara baserriko zen Margarita Altunarekin ezkondu zen. Alaba Irenek erakusten digun argazkian emakume eder bat zela ikus daiteke, begiratu garbiko emakume polit bat. Juan Joserren gurasoena zen eta hutsik aurkitzen zen Zaldunborda baserrian jarri ziren bizitzen, etxea txukundu ondoren. Hiru seme-alaba izan zituzten: Irene (Errenterian bizi dena) eta Julita eta José Luis, Hondarribian eta Irunen bizi direnak.

Errenteriako María de Lezon aurkitzen zen Esmaltería Guipuzcoanan hasi zen lanean eta bertan aritu zen, hogeita bederatzi urte



Juan José Irazusta Argentinako garaian

luzez. Oraindik gogoratzen dituzte berarekin lan egindakoek gizon ixil eta atsegin honen joan-etorriak. Gogoratzen dute egunero bizikletaz etortzen zela Gaintxurizketako bere baserritik, Lezoko lankide batzuk bidelagun zituela. Gaur atipikoa irudituko litzaigukeen irudian, urtez aurrera goazenok ederki gogoratzen dugu txirrindularien benetazko pelotoietan nola etortzen eta joaten ziren langileak, egunero lau bidaia eginez, beti mantso eta beti garaiz. Fabrikan lanean ari bazen ere, beti izaten zuen hazienda pixka bat eta baratzta zaintzen zuen.



“Esmaltería Guipuzcoana”. 1957. urteko uhoaldeak

Urte horietan guztietan, eta jubilazio bitarte, ez zuen ezer idatzi, baina beti utzi zituen bere nor-tasunaren zertzeladak. Gizon lasaia zen, inoiz ahotsa jasotzen ez duen horietakoa, baina ez horregatik inozoa. Bere alaba Irenek kontatzen digu, behin berandu iritsi zirela etxera bi ahizpak Hondarribiako alamedan dantzan gelditu zirelako. Errietaren beldur edo, trena galdu zutela esan zioten aitari eta honek, haserretu gabe, bota omen zien: “*Berriro jaio beharko duzue ni engainatzeko*”. Ez omen zuten harrezgeroztik beste ahaleginik egin.

Gizon ordenatua zen, jan eta edan kontuan beti ohitura berdinak mantentzen zituen. Ohitura horien artean, bazituen batzuk indioei ikasitakoak. Adibidez, gaue-ro, ohera joan aurretik ur otzetan hankak sartuak izaten zituen, baita neguan ere. Oso ona omen zen, bere esanetan.

Itxura ihar eta ahula bazuen ere, ikaragarritzko indar mentala zuen eta arazoei aurre egiten zekien espantu haundirik gabe. Zigarro erretzaile amorratua izan zen bizitza guztian eta 70 urte zituela be-heko ez-painaren azpikalde-

an kozkor bat atera zitzaion. Onkolo-gikoan minbizia zuela iragarri zioten. Ez zen horregatik izutu eta gaixotasunari frente egin zion: “*Hau ez da ezer*” esanez. Den-den, erretze kontuan ohiturak aldatu zituen eta zigarroak erretzeari utzi eta pipari ekin zion. Honi buruz ere, bazuen bere iritzia: “*Honek debilei bakarrik egiten die kalte*”

75 urte zituela, baserriko bakardadean idazten hasi zen ordurarte euskaraz ezer idatzi gabeko gizona. Irakurketak erdaraz egiten zituen gehien bat, euskaraz

idatzitako libururik ez baitzuen inoiz irakurri eta bere euskarazko irakurketa bakarrak Arantzazu, Goiz-Argi eta Zeruko Argia aldizkariak izan ziren. Horregatik, berak aitortzen zuen batzuetan euskara motz gelditzen zitzaiola eta erdaraz idatzi izan balu hobeto moldatuko zatekeela testua apaintzeko.

Eta idazten ere, eleberria idazten hasi zen, Patagoniatik euskaldun batek bere gurasoei egiten dien eskutitz bat abiapuntutzat hartuz. Eleberriaren hasiera hau Aita Zabalar erakutsi nahi izan zion, honek bere oniritzia eman ziezaion, aurrera jarraitu baino lehenago.



“Unión Cívico-Radical” partiduko karneta

Aita Zabala liluraturik gelditu zen hasieratik eta bere ustetan: “*Nobelagile jator baten sena erakutsi du Irazustak*” “*Irazusta honek nobela jator bat egin du pertsonajeak ere asmatuz*”.

Nobelaren hitzau-rean Aita Zabalak esplikatzen digu Juan José Irazustak bere irudipenetik sortutako pertsonaiak eta gertakariak nola bizi zituen, guztiz errealak balira bezala et askotan base-rriara egiten zizkion bisitaldietan zein ilusioz edo harriduez edo penaz ematen zion pasadizo horien berri.



“Victoria Eugenia” itsasontzia hartuta Argentinara abiatu zen.



“Nork bere bidea” eleberriaren azala

Nobela gauez idatzi zuen. Gaueko hirurak aldera edo, esnatzen zen eta kafea eta madalenak hartuta egunsentirarte idazteari ekiten zion, bakardade guztizkoan. Askotan esan zuen, egunez ezingo lukeela letra bat bera ere idatzi. Gaueko bakardade hori ezinbestekoa zuen pertsonaiak bizi eta sentitu ahal izateko.

Bost urte luzez aritu zen lan honetan eta 1.980. urtean, Auspoa sailean, argitara eman zuen bere nobela, “Nork bere bidea”, hiru liburukitan. Agortu zenez, bigarren argitalpena ezagutu zuen 1.994. urtean liburuki bakarrean.

Eleberriak “Kritikaren Saria” jaso zuen eta kritiko guztiek asko goraldtu izan dute bere kontatzeko modua, oso erakargarria baita. Jende asko da Joxe Lizaso bertsolariarekin batera aitor dezakeena: “oso gustora irakurri dut, eseri eta ezin utzi”.

Omenaldi eder bat egin berri dio Hondarribiako udalak nobelagile gizon harrigarri honi.

Bukatu nahi nuke Aita Zaballak nobelaren hitzaurreari amaiera emateko erabiltzen dituen hitzak hartuz: “*Tonto arroak baño, Juan José Irazusta bezelako umil argiak on geiago egiten diote Euskalerrinari*”



Juan José Irazusta bere azken urteetan